

ikasmina:

**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikastetari buruzko dokumentuak

# Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan

64. dokumentua

2019ko apirila

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Landa Inguruneko eta  
Lurralde Orekako Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Medio Rural  
y Equilibrio Territorial

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Ikasten duten pertsonak .....</b>	<b>4</b>
2.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan.....	4
2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza .....	6
2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko harremana .....	8
<b>3. Nork ikasten dute? .....</b>	<b>9</b>
3.1. Ikasten duten pertsonak.....	9
3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak .....	11
3.3. Zergatik ez dute ikasten? .....	13

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutzen oinarritutako ekonomia duen eta lehiakorra eta dinamikoa den gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, ikaskuntzaren gizarte sortu behar da, ekonomia produktiboagoa garatu eta bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Helburu hori du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentuak, eta hala, uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena direla aurrerabide eta kohesio soziala eragiteko gai diren elementu estrategikoak, eta pertsonak, berriz, eredu berri horren giltzarriak. Hau da, talentuaren, antolaketaren eta teknologiaren arteko oreka egokia topatuta, modu iraunkorrean garatuko den lurralde bihurtzeko.

Ikuspegi horrekin, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera bideratuta egunerokotasunean pertsonak egindako jarduera guztiak biltzen ditu bizi osoko ikaskuntzak; hala, bizitzako eremu guztiak txertatzen ditu: pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du; hori urteko kontsulta batean babesten da (urteko lehen hiruhilekoa). Dokumentuak emaitza orokorrak aurkezten ditu; pertsonen arlo garrantzitsuak kokatzen ditu 2019ko ikaskuntzako jarduerekin lotuta.


## 2. Ikasten duten pertsonak

### 2.1. Partaidetza bizi osoko ikaskuntzan

#### Gipuzkoako hamar herritar heldutatik lauk ikasi egiten du

2019an, Gipuzkoako biztanleria helduaren artean (25-74 urte) bizitza osoko ikaskuntza jardueretan<sup>1</sup> parte hartzea % 39,6an kokatzen da, 2018koaren antzeko datua (% 40,1).

#### 1. grafikoa Ikasten duten pertsonak, generoaren arabera. 2018-2019



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

<sup>1</sup> Bizitza osoko ikaskuntzak biltzen ditu hezkuntza titulu ofiziala (ikaskuntza formala) lortzera bideratutako ikasketa-jarduerak eta modu antolatuan eta iraunkorrean egindakoak, baina titulu ofizialik lortzera bideratuta ez daudenak (ikaskuntza ez-formala).

### Emakumeen parte-hartzeak bilakaera hobea erakusten du

Atxikitako grafikoan ikus daitekeen moduan, emakumeek ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzea gizonena baino zertxobait altuagoa da. Zehazki, 2019an, Gipuzkoako emakume helduen % 41,7k adierazi du azken urtean ikaskuntzan parte hartu duela; gizonen % 37,5ek adierazi du hori. Alde hori mantendu egiten da denboran

Azken urtean landutako ikaskuntza-tipologiari dagokionez, ikaskuntza ez formala da ikasteko modu nagusia. Bestalde, ikaskuntza formalean parte hartzeak zertxobait gora egin du emakumeen artean (% 9,5etik % 10,2ra 2019an), baina behera egin du gizonen artean (% 10,5etik % 8,5era 2019an).

Azkenik, aipatu beharrekoa da gizonen eta emakumeen taldean ikaskuntza ez formaleko jardueretako parte-hartzeak antzeko bilakaera duela (-0,6pp eta -1,0pp, hurrenez hurren), bi kasuetan, jaitsiera arinarekin.

Laburpen gisa, adierazi behar da 2019an ikaskuntza-jardueretan Gipuzkoako pertsona helduen parte hartzea berresten dela. Kopuru hori hamar pertsona heldutik lau inguruan eta proportzio egonkortuan kokatzen da. Era berean, nabarmendu behar da ikaskuntzan emakumeek duten parte-hartzeak nabarmen gainditu duela gizonezkoek egindakoa.

### 1. taula Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza-motaren eta generoaren arabera. 2018-2019

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2018	2019
<b>Ikasten duten emakumeak</b>	<b>42,5</b>	<b>41,7</b>
Ikaskuntza formala	9,5	10,2
Ikaskuntza ez formala	37,7	36,7
<b>Ikasten duten gizonak</b>	<b>39,5</b>	<b>37,5</b>
Ikaskuntza formala	10,5	8,5
Ikaskuntza ez formala	34,1	33,5

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia


## 2.2. Ikaskuntza, adina eta prestakuntza

### Ikaskuntzako parte-hartzea handiagoa da pertsona gazteenen artean

Biztanleria helduak ikaskuntza-jardueretan duen parte-hartzea nabarmen murrizten da pertsonen adinak gora egin ahala. Hala:

- Ikaskuntzako parte hartzeak biztanleriaren % 50 gainditzen du 44 urte arteko pertsonen artean: Gipuzkoako 25 eta 34 urte arteko pertsonen erdiak baino gehiagok (% 56,5) ikasten du; kopurua biztanleriaren % 51,0an kokatzen da 35 eta 44 urte arteko pertsonen artean. Bestalde, 45 eta 54 urte arteko pertsonen artean % 42,4an kokatzen da.
- Parte-hartze tasa horiek behera egiten dute adinez nagusiagoak diren segmentuetan. Horrela, 55 eta 64 urte arteko pertsonen % 29,4k ikasten dute (-2,5pp) eta adinez nagusiagoak diren (65 eta 74 urte artean) pertsonen kasuan, % 15,2ra arte murrizten da (+1,1pp).
- Azken finean, ikaskuntzako parte-hartzeak behera egiten du pertsonen adinak gora egin ahala, eta ia 40 puntuko aldea dago talde gazteenen eta adinez nagusienak direnen artean.

### 2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, adin taldearen arabera. 2018-2019




Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Herritarrek lortutako gehieneko ikasketa maila ikasten jarraitzeko behin betiko ezaugarria da

Azken urteetan jakinarazi den moduan, herritarrek zenbat eta hezkuntza maila altuagoa izan, ikaskuntza-jardueretako partaidetza ere orduan eta handiagoa izango da. Hala:

- Gipuzkoan unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen erdiek baino gehiagok (% 53,6) azken hamabi hilabeteetan ikaskuntzako jardueraren batean hartu dute parte. Gainera, nabarmendu beharrekoa da aintzat hartutako hiru mailetatik parte-hartze handieneko tasa duen taldea dela, nahiz eta 2018rekin alderatuta behera egin duen (-9,1pp).
- Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen % 34,6k adierazi du ikaskuntza-jardueretan parte hartu duela azken urteetan, eta ia-ia balioa errepikatu du 2018koarekin alderatuta (-0,6pp).
- Azkenik, lehen mailako ikasketak dituzten bost pertsonatetik batek baino zertxobait gutxiagok adierazi du ikaskuntza-jardueraren bat egin duela azken hamabi hilabeteetan (% 16,4); proportzio hori bere horretan mantentzen da 2018. urtearekin alderatuta (% 16,4).

### 3. grafikoa Ikasten duten pertsonak, lortutako ikasketa mailaren arabera. 2018-2019



Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 2.3. Ikaskuntza eta lan-merkatuarekiko harremana

### Ordaindutako enplegua duten biztanleria helduaren erdiak ikaskuntza-jardueraren batean hartu du parte azken urtean

Azken urteetan gertatu denaren arabera, ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea handiagoa da pertsona aktiboen artean (ordaindutako enplegua dutenak eta langabetuak).

Hori dela eta, ordaindutako enplegua duen bi pertsonatik batek<sup>2</sup> (% 48,9) eta langabezia-egoeran dauden bost pertsonatik bik (% 41,7) ikaskuntza-jardueretan hartu dute parte azken urtean. Bi kasuetan, Gipuzkoako gizartearen batez bestekoa gainditzen da.

Horrela, ikaskuntza-jarduerak egiteak behera egin du erretiroa hartutakoen eta ordaindutako lan-merkatuan txertatu gabekoen artean: erretiroa hartutako pertsonen % 17,6k (% 22,0 2018an) eta ordaindutako lan-merkatuan txertatu gabeko pertsonen % 9,5ek soilik (% 13,6 ziren 2018an) ikasten dute.

Ondorioz, ostera ere berretsi da ikaskuntzan parte hartzearen eta pertsonen enplegagarritasunaren artean dagoen konexio handia.

### 2. taula Ikasten duten pertsonak, lan-merkatuarekiko harremanaren arabera. 2018-2019

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2018	2019
Ordaindutako enplegua du	51,0	48,9
Langabezian	42,5	41,7
Erretiratua	22,0	17,6
Lan-merkatura txertatu gabekoa	13,6	9,5
<b>Guztira</b>	<b>41,0</b>	<b>39,6</b>

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

<sup>2</sup> Eskuragarri dauden datuen arabera (Fundae), hobaritutako prestakuntza-jardueretan lanean ari diren (Gizarte Segurantzak) pertsonen parte-hartzea enpleguaren % 33,3a da Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez. Kopuru hori "prestakuntza-lurzorua" erreferentzia izango litzateke eta horri prestakuntza gehitu behar zaio prozedura honetatik kanpo, erakundeetatik eta banako moduan, barne-prestakuntza eta abar



# 3. Nork ikasten dute?

## 3.1. Ikasten duten pertsonak

**Ikasten duten pertsonen profila: 25 eta 44 urte artekoak, goi mailako ikasketak dituztenak eta ordaindutako enplegua dutenak**

Azken urtean ez da batere aldatu bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen dutela dioten Gipuzkoako biztanleria helduaren profila. Horrela, 2019an:

- Emakumeen parte-hartzeak (% 52,8) zertxobait gainditu du gizonezkoen parte hartzea (% 47,2); hain zuzen ere, 2018koaren antzeko datuak dira, emakumeen alde.
- Ikasten duten pertsona helduen bi herenek 25 eta 44 urte artean dituzte (% 55,4). Ildo horretatik, ikasten duten pertsonen % 23,3k 25 eta 34 urte artean du; eta heren batek 35 eta 44 urte artean du (% 32,1). Talde hori 45 eta 64 urte arteko pertsonak batzen zaizkio (% 35,9). Azkenik, gainerako % 6,3ak 65 eta 74 urte artean ditu.

Jakin beharrekoa da emaitza hori adin-taldeen arabera Gipuzkoako biztanleriaren osaerak zehazten duela: biztanleria zahartzen doan heinean, 45 eta 64 urte artekoen taldea izango da ugariena, eta hain zuzen ere, 2019an halaxe da dagoeneko.

- Dagoeneko aipatu den moduan, pertsonen lortutako gehieneko ikasketa maila oso garrantzitsua da bizitza osoko ikaskuntzarekin jarraitzeko: ikasten duten pertsonen % 61,3k goi mailako ikasketak ditu, % 30,5ek bigarren mailako ikasketak ditu eta % 8,2k lehen mailako ikasketak ditu.
- Azkenik, ikasi duten pertsonen hiru laurdenek baino gehiagok ordaindutako enplegua du (% 74,5) eta % 9,4 langabezia dago. Horrela, bistakoa da

ikaskuntzak lan-merkatuarekin, pertsonen posizioarekin eta prestakuntza jarraituarekin lotuta duen garrantzia.

**3. taula Ikaskuntza-jarduerak egin dituen biztanleriaren ezaugarriak 2018-2019**

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2018	2019
<b>Generoa</b>		
Gizonezkoak	48,2	47,2
Emakumezkoak	51,8	52,8
<b>Adina</b>		
25-34 urte	20,8	23,3
35-44 urte	32,7	32,1
45-64 urte	39,9	35,9
65 urte eta gehiago	6,5	6,3
<b>Ikasketa maila</b>		
Lehen mailako ikasketak	9,2	8,2
Bigarren mailako ikasketak	34,2	30,5
Goi mailako ikasketak	56,5	61,3
<b>Egoera lan-jarduerari dagokionez</b>		
Ordaindutako enplegua du	71,7	74,5
Langabezian	9,2	9,4
Erretiratua	13,1	10,4
Lan-merkatura txertatu gabekoa	2,4	1,3
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 3.2. Ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonak

#### Ikasten ez duten pertsonen profila: adineko pertsonak, prestakuntza eta ordaindutako lan-merkatuan parte-hartze maila txikiena dutenak

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzen ez duten pertsonen profila honako hau da:

- Ikasten ez duten emakumeen ehunekoa gizonena baino zertxobait altuagoa da, baina ezin da esan aldea adierazgarria denik (% 48,5, gizonen % 51,5en aurrean).
- Ikaskuntza-jardueretako parte-hartze gabezia, neurri handi batean, 65 urte baino gehiagoko pertsoneri dagokie: ikasten ez duten pertsonak % 23,1 dira eta, aldiz, % 6,3, ikasten dutenak.
- Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar Gipuzkoako biztanleria helduaren zati garrantzitsu batentzat, lortutako ikasketa mailak adinarekin lotura zuzena duela. Hori dela eta, ikasten ez duten pertsonen artean biltzen dira lehen mailako ikasketak dituzten pertsonak (% 27,4).
- Azkenik, haien egoera lan-jarduera egitearekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da ikasten ez duten pertsonen % 51,1ek ordaindutako enplegu edo lanbide bat duela, % 8,7 langabezia-egoeran dagoela, % 32,0 erretiroa hartutako pertsonak direla eta % 8,2 ez dela ordaindutako lan merkatuan txertatu.

Hau da: Pertsona talde batek ez du ikasten eta adinaren arabera dago zehaztuta. Horrek baldintzatzen du lan-merkatuan ez parte hartzea eta prestakuntza maila baxuagoa izatea. Baina erronka bestelakoa da: "gazte" izanik eta laneko merkatuan parte hartuta ikasten ez duen kolektiboaren zatia.

**4. taula Ikasten duen eta ikasten ez duen biztanleriaren ezaugarriak. 2019**

25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	<b>Ikasten duen biztanleria</b>	<b>Ikasten ez duen biztanleria</b>
<b>Generoa</b>		
Gizonezkoak	47,2	51,5
Emakumezkoak	52,8	48,5
<b>Adina</b>		
25-34 urte	23,3	11,8
35-44 urte	32,1	20,2
45-64 urte	38,4	44,9
65 urte eta gehiago	6,3	23,1
<b>Ikasketa maila</b>		
Lehen mailako ikasketak	8,2	27,4
Bigarren mailako ikasketak	30,5	37,7
Goi mailako ikasketak	61,3	34,8
<b>Egoera lan-jarduerari dagokionez</b>		
Ordaindutako enplegua du	74,5	51,1
Langabezian	9,4	8,7
Erretiratua	10,4	32,0
Lan-merkatura txertatu gabekoa	5,7	8,2
<b>Guztira</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

*Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia*

### 3.3. Zergatik ez dute ikasten?

#### Prestakuntza laneko ordutegiarekin bateragarria ez izatea dago Gipuzkoako biztanleria helduaren artean ez ikasteko arrazoi nagusien rankingean

Ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko Gipuzkoako biztanleria helduak bildutako oztopoen artean, arrazoi nagusi gisa nabarmendu behar da prestakuntza laneko ordutegiarekin bateragarria ez izatea. Zehazki, pertsonen heren batek (% 33,4) ez ikasteko arrazoi gisa adierazi du eta 2018 eta 2019 artean gora egin duen arrazoi bat da (+3,0pp).

Bigarrenez, gutxi gorabehera ikaskuntzan parte hartzen ez duen biztanleriaren heren batek adierazten du familia-erantzukizunak direla mota horretako jardueraren bat ez egiteko arrazoia (% 31,3). Bestalde, ohikoena den hirugarren traba motibazio-falta da (% 21,6).

Aztertutako gainerako arrazoiak urrun samar geratu dira. Hauek dira: uste dutelako prestakuntza ez dela beharrezkoa beren ezagutzak dagoeneko nahikoak direlako (% 14,8), helduegia izateagatik (% 13,8) edo kostuarengatik (% 6,2).

Argudio horiek antzeko proportzioan aipatu dituzte aintzat hartutako bi urteetan, motibazio-falta izan ezik (-10,3pp). Horrela, lehen hiru arrazoiak –ordutegia bateratzeko zailtasunak, familia-erantzukizunak eta motibazio-gabezia– mantendu egiten dira eta horiek dira ikaskuntza-jardueretan parte-hartze handiagoa mugatzen dutenak.

#### 5. taula Azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez izanaren arrazoiak 2018-2019

Azken urtean ikasi ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	2018	2019
<b>Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin</b>	30,4	33,4
<b>Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate</b>	35,0	31,3
<b>Motibazioa falta zait</b>	31,9	21,6
<b>Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira</b>	13,5	14,8
<b>Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut</b>	16,8	13,8
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	11,4	6,2

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Alde handiak generoaren arabera: emakumeentzat, arrazoi nagusia familiako erantzukizunak dira, eta gizonentzat, lanarekiko bateraezintasuna**

Ikaskuntza-jardueretan ez parte hartzeko lurraldeko gizonek eta emakumeek adierazitako arrazoen artean dauden aldeak adierazgarriak dira. Hain zuzen ere, ikasten ez duten emakumeen % 42,1ek, arrazoi nagusien artean, familiako erantzukizunak adierazi ditu, eta gizonezkoen % 21,2k adierazi du hori. Ildo horretatik, genero-arraila oso garrantzitsua da (19,9pp puntuko aldea) eta proiektu honen hasieratik mantentzen da (2008).

Ikaskuntza-jardueretan parte ez hartzeko gizonek adierazitako arrazoi nagusia prestakuntza eta laneko ordutegia bateraezinak izatea da (% 31,2); hori da emakumeek aipatzen duten bigarren arrazoi nagusia (% 35,7); hala ere, aurrenekoarekiko aldearekin (6,4 puntuko aldea).

Bestalde, gizonentzako bigarren –eta emakumeentzako hirugarrena– trabarik ohikoena motibazio-falta da (% 22,1 eta % 21,2, hurrenez hurren).

Azkenik, bai gizonek, bai emakumeek neurri txikiagoan aipatu dituzte adinik ez izatearekin edo nagusi sentitzearekin, garestia izan eta ezin izatearekin edo nahikoa ezagutza dutelako ikastea beharrezkoa ez izatearekin lotutako oztopoak.

**6. taula Ikaskuntzan ez parte hartzeko arrazoiak, generoaren arabera. 2019**

Azken urtean ikasi ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	Gizonezkoak	Emakumezkoak
<b>Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin</b>	31,2	35,7
<b>Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate</b>	21,2	42,1
<b>Motibazioa falta zait</b>	21,2	22,1
<b>Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira</b>	20,8	8,5
<b>Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut</b>	17,2	10,2
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	6,8	5,5

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Ez ikasteko bi arrazoi nagusiak aldatu egiten dira pertsonen bizitza-unearen arabera

Pertsonen ikaskuntzan parte-hartzeari jarritako oztopoak biltzen ditu atxikitako koadroak, adin taldeen arabera. Zehazki:

- Familia-erantzukizunak oso oztopo garrantzitsuak dira pertsonentzat aintzat hartutako lau adin taldeetan; izan ere, adin talde bakoitzeko hiru pertsonatetik batek behintzat adierazi du. Gainera, 25-34 eta 35-44 urte arteko pertsonak dira neurri handienez aipatzen dutenak.
- 25-34 eta 35-44 urte arteko pertsonak adierazi dute ikasteko oztopo nagusia ikaskuntza eta laneko ordutegiaren bateragarritasun-gabezia dela (% 59,6 eta % 55,1, hurrenez hurren).
- Eta bestalde, 45-64 eta 65-74 urte arteko pertsonentzat, motibazio-gabeziaren garrantziak gora egiten du ikaskuntzari traba egiten dion garrantzizko argudio gisa (% 23,4 eta % 27,7 hurrenez hurren). Hala ere, azken talde horretan, arrazoi nagusia nagusiegi sentitzea litzateke (% 39,3).

Hau da, pertsona guztientzat, badirudi ordutegiaren eta erantzukizunen bateragarritasuna ikasteko eragozpena dela, bizitza-ibilbidean zehar aldatzen den garrantzi mailarekin.

### 7. taula Ikaskuntzan ez parte hartzeko arrazoiak, adin taldearen arabera. 2019

Azken urtean ikasi ez duen 25 eta 74 urte arteko biztanleria (%)

	Guztira	Adin-taldeak			
		25-34	35-44	45-64	65 eta gehio
<b>Prestakuntza ez da bateragarria nire lan-ordutegiarekin</b>	33,4	59,6	55,1	32,1	3,6
<b>Nire erantzukizun familiarrek galarazi egiten didate</b>	31,3	36,8	42,9	27,5	25,9
<b>Motibazioa falta zait</b>	21,6	10,5	17,3	23,4	27,7
<b>Behar ez ditudala uste dut, nire ezagutzak nahikoak dira</b>	13,8	1,8	1,0	9,6	39,3
<b>Ez daukat adinik, zaharra naizela uste dut</b>	14,8	10,5	9,2	17,9	16,1
<b>Garestia da, ezin dut ordaindu</b>	6,2	15,8	10,2	4,1	1,8

Erantzun anitza

Iturria: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Dept. Gipuzkoako Foru Aldundia

**Metodologia: ikaskuntza-definizioen aplikazioa, neurketaren jarraikortasuna eta nazioarteko alderaketa bermatzen dituztenak**

Gipuzkoako pertsona helduek egindako ikaskuntza-jardueren ezagutza urteko inkesta bat egitean oinarritzen da. Definizioak<sup>3</sup> eta edukiak mantentzeak neurriaren jarraikortasuna bermatzen du, eta batez ere, nazioarteko alderagarritasuna. Zehazki, ikerketa-lerro honetan ikaskuntzako hiru kategoría handi hartzen dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: heziketa- eta prestakuntza-zentroetan garatzen da, eta diplomak eta egiaztatutako prestakuntza lortzen dira.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean gauzatzen da, baina ez da titulu ofizialik eskuratzen. Ikaskuntza mota hori erakundeetan eta erakundeetatik kanpo eskura daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, marrazketako eskolak...).
- Ikaskuntza informala: ikasteko helburuarekin gauzatutako jarduera gisa definitzen da, baina nor bere kabuz egiten du, erakundeetara jo gabe. Ikaskuntza ez-formalaren kasuan baino antolaketa eta egituraketa gutxiagorekin eskuratzen dira ezagutzak; esaterako, familian, lanean edo norberaren eguneroko bizitzan gertatzen diren ikaskuntza-jarduerak dira.

Bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartze tasa<sup>4</sup> pertsonak ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko jardueretan parte hartzetik abiatuta osatzen da.

---

<sup>3</sup> Eurostaten metodologia.

<sup>4</sup> Ikaskuntza informalak osatzen du ikaskuntzaren ikuspegi orokorra, baina ez dugu sartu kontaktetan, oso subjektiboa (norbere kabuz ikasten dena) eta herrialde batetik bestera oso irregularra baita. Iturria: Eurostat.





Izenburua: Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan  
64. Dokumentua, 2019ko apirila

Koordinazioa eta gainbegiratzea Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka  
Departamentua  
Gipuzkoako Foru Aldundia

Lantzea IKEI, research & consultancy S.A.

Landa-lana Datakey, S.A.

